

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Tradizio herrikoiak berreskuratzeko jarduerak egiteko dirulaguntzen 2026ko deialdiaren laburpena

BDNS (Identif.): 887125.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/887125>.

TRADIZIO HERRIKOIAK BERRESKURATZEKO JARDUERAK EGITEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIAREN LABURPENA

Alkatearen maiatzaren 2ko 121/2025 Ebazpena, tradizio herrikoiak berreskuratzeko jarduerak egiteko norgehiagoka bidezko dirulaguntzen deialdia egiten duena 2025erako.

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen dago ikusgai: www.infosubvenciones.es.

Lehenengoa. Onuradunak

Dirulaguntza honen xede diren jardueretako edozein egiten duten udalerriko elkarteak eta kontzejtuak izango dira onuradunak.

Bigarrena. Xedea

Deialdiaren xedea da udalerriko elkarte eta kontzejtuentzako dirulaguntzak arautzea, ahazten ari diren herri tradizioak (hala nola Santa Ageda, Ostegun Lardero, Jaiotza bizia, Olentzero eta Mari Domingi, Erre Pui Erre eta Erregeen desfilea) berreskuratzeko jarduerak antola ditzaten.

Gastu hauek lagundu ahal izango dira diruz:

Santa Ageda, Ostegun Lardero eta Erre Pui Erre: joaten direnei txokolatea, salda eta gaztainak eskaintzeko osagaiak.

Olentzeroren eta Erregeen desfileak: jantzien alokairua, antzezpena egiteko osagarriak, joaten direnei txokolatea, salda, gaztainak eta karameluak eskaintzeko osagaiak.

Jaiotza biziak: jantziatarako gastuak (oihalak eskuratzea eta jantziak egitea, jantziak alokatzeari), dekoratuak eraikitzeko materialak eta antzezpena egiteko behar diren elementuak.

Deialdi honen xedearekin bat datozen eta udalbatzak onartzen dituen beste proposamen batzuk: jarduera motaren arabera baloratuko da, ahal den neurrian aurreko ataletako edozein nekin parekatuz.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak Udalbatzaren 2025eko otsailaren 26ko bilkuran aldatu ziren eta 2025eko apirilaren 11ko ALHAOn argitaratu (42/2025 zenbakia).

Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa

Aurreikusitako gastuaren ehuneko 90erainoko dirulaguntzak eman ahal izango dira, muga hauekin:

Santa Ageda, Ostegun Lardero, Erre Pui Erre: 50,00 euro.

Olentzero eta Mari Domingiren eta Erregeen desfileak: 300,00 euro.

Jaiotza biziak: 2.500,00 euro.

Deialdi honen xedearekin bat datozen beste proposamen batzuk, Udalbatzak onetsiak: 50,00 euro.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak oinarrien I. eranskinen ereduaren egin behar dira, eta oinarrietan aipatzen den dokumentazioa ere aurkeztu behar da, eta aurkezteko epea 2025eko azaroaren 30ean bukatuko da.

Seigarrena. Eskaerari erantsi beharreko agiriak

Egin nahi den jardueraren proiektua edo memoria, sinatuta.

Jarduerarako aurreikusitako aurrekontua.

Lortu ahal diren beste dirulaguntza batzuen zerrenda.

Dirulaguntza jarduera egin ostean eta elkarteak edo kontzejuak emandako dirulaguntza ordaintzeko eskaera aurkeztu eta gero ordainduko da.

Ordaintzeko eskaera udalak onartutako ereduaren egin behar da (II. eranskina) eta harekin batera dokumentazio hau aurkeztu behar da:

Egindako jardueraren memoria, arduradunak sinatuta. Hartan, honako hauek zehaztu behar dira: jarduera, emandako dirulaguntza, egin den eguna eta parte hartzaileen eta onuradunen kopuruak, bat ez badatoz.

Lortutako beste dirulaguntza batzuen ebazpena.

Egindako jardueraren argazkiak edo grabazioak.

Jardueran egindako gastuen eta diru sarreren zerrenda, arduradunak sinatuta.

Emandako dirulaguntzaren zenbateko berdinari edo handiagoari dagozkion gastuen jatorrizko fakturak, onuradunaren izenean eginak. Faktura horietan argi eta garbi adierazi behar da zer kontzepturengatik eman diren eta dagokion BEZa, eta horiek ordaindu izanaren frogagiriak ere aurkeztu behar dira.

Durana, 2026ko otsailaren 12a

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE